

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### **Gasteizko Udalaren jabetzakoak diren etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroak eta emakumeentzako beste egoitza-zerbitzu batzuen jabari-emakida luzatzea Arabako Foru Aldundiari**

2008ko abenduaren 5ean onartu zen EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, honako xede hau zuena: Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea sustatu eta bermatzea, eta, horretarako, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema unibertsal bat arautu eta antolatzea.

2015eko urriaren 29an onartu zen 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta gizarte-zerbitzuen zorroari buruzkoa, zerbitzu horiek lortzeko beharrezkoak, irizpideak eta prozedurak arautzeko; horretarako, besteak beste, EAEko administrazio publikoek dituzten obligazioak ezartzen dira zorro horretako prestazio eta zerbitzuez hornitzeari dagokionez.

Arabako Lurralde Historikoan 2016ko uztailaren 22an onartu zen Gizarte Zerbitzuen Mapa, eta udalaren eskumeneko zein foru erakundearen eskumeneko laguntza ekonomiko eta zerbitzuen multzoa ezarri.

Esparru horretan, Gasteizko udalerrirako gizarte zerbitzuak ordenatu eta haien eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak ezartzearen, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bi erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmen orokorra izenpetu zuten gizarte zerbitzuen alorreko eskumenak berrantolatzeke.

Berrantolatu beharreko zerbitzuen artean daude gaur egun Gasteizko Udalaren jabetzako higiezinetan kudeatzen diren baina foru aldundiaren eskumenekoak diren zerbitzu batzuk, besteak beste, bazterkeria- eta marjinazio-egoeran dauden emakumeentzako egoitza-zentroak.

Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen, 2017ko apirilaren 7ko bilkuran, Arabako Foru Aldundiari ematea etxeko tratu txarren biktimentzako egoitza-zentroen –zein jabari publikoko udal ondasuna den– erabilera pribatiboa, oinarri hauei jarraiki:

- Higiezin erabilera pribatiboaren ordez ez da ezer emango, emakidadunak ez baitio onura ekonomikorik aterako.
- Emakidak urtebeteko iraupena izango du hasteko, baina epe bererako luzatu daiteke, aldeek berariaz adierazita, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.
- Esleipendunak bere gain hartuko ditu horniduren gastuak, altzarien zuzkidura, garbitasuna, prebentzio eta konponketa lanak, komunitateko ohiko eta aparteko gastuak, eta higiezinaz zamatzen duten zergak eta bestelako gastuak.
- Zentroak aurreikusitako helburuak egoki bete ditzan behar diren lanak egiteko baimena eman ahalko du Udalak. Obra horiek Udalaren onurarako geratuko dira emakida amaitzean, eta ez dute sortuko inolako ordainik ez eta kalte-ordainik ere foru erakundearen alde.
- Udalak ez du lokalak uzteaz beste ardurarik bere gain; beraz, ez du –ez zuzenean ez subsidiarioki– egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen

gaineko ardurarik hartuko bere gain. Emakidadunari dagokio erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatzea, eta lagapenak irauten duen bitartean indarrean izatea. Gasteizko Udalak aseguratu gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

- Emakida administrazio agirian formalizatuko da.
- Honako hauek izango dira hitzarmena iraungitzeko arrazoiak:
  - Emakidadunaren nortasun juridikoa iraungitzea.
  - Iraungitzea, epea gainditu delako.
  - Erreskatea.
  - Alderdiak ados jartzea.
  - Titularraren betebeharren ez betetze larria.

- Ondasunak jabari publikotik kentzea, eta hala gertatuz gero, likidatu egingo dira, azaroaren 3ko Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legearen 102 artikuluan araututakoaren arabera.

2018ko urtarrilaren 17an Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren 5 zenbakiko Erabakia jaso zen Udaleko Erregistro Nagusian, 2018ko urtarrilaren 9koa, zeinaren xedea baitzen luzapena eskatzea Gasteizko Udalaren jabetzako izanik Arabako Foru Aldundiari jabari-emakidan egin dion lagapena luzatzea, erabilera pribatibo eta doakoan genero indarkeriaren biktima diren emakumeak berehalakoan hartzeko zentrorako.

Jabari publikoaren gaineko emakiden erregimena Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 93. eta 94. artikuluetan dago araututa oro har, eta Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan bereziki horiei dagokienez.

Otsailaren 6an eskabidea egin zitzaion Gizarte Politiken Sailari, eta hark eskatutako luzapenaren aldeko txostena eman zuen.

Aintzat hartuta gaur egun ere aurreikusten dela zerbitzua titularra den Arabako Foru Aldundiari ematea, eta gaur egungo instalazioetan kokapen egokia aurkitzen den bitartean, egoki da eskatutakoa onartzea, hasierako luzapeneko baldintza beretan.

Aurrekoaren haritik, eta Tokiko Gobernu Batzarrak duenez emakidak esleitzeko eskumena —Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratu onetsi zeneko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak (“Toki erakundeetan kontratatzeko berariazko arauak”) xedatutakoaren arabera—, erabaki-proposamen hau egiten dio Ogasun Saileko zinegotzi ordezkariak Tokiko Gobernu Batzar horri:

Lehena: Gasteizko Udalaren jabetzakoak diren etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako egoitza-zentroen jabari-emakida urtebetez luzatzea Arabako Foru Aldundiari, 2018ko urtarrilaren 1etik hasita.

Bigarrena: Adierazitako ondasunen jabari-emakidaren luzapena esleipenerako arau berberaren arabera gauzatuko da, eta erabaki hau bere garaian formalizatutako administrazio-agiriari gehituko zaio.

Hirugarrena: Erabaki honen berri ematea interesatuei, Gasteizko Udaleko Zerga Kudeaketarako Zerbitzuari eta Udal Eraikinetako Mantentze Zerbitzuari, bai eta Arabako Foru Aldundiari ere.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko martxoaren 1ean

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**